

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

“Amurrioko Hiribilduko” 2019ko arte lehiaketaren sariak arautzen dituzten oinarriak onestea

2019ko martxoaren 28ko udalbatzaren erabaki bidez, “Amurrioko Hiribilduko” 2019ko arte lehiaketaren sariak arautzen dituzten oinarriak onetsi ziren, jarraian zehazten diren ezaugarriekin.

1. Partaidetza

Oinarri hauekin bat datorren edonork parte hartu ahal izango du, edozein dela ere bere nazionalitatea edo bizilekua.

2. Baldintza teknikoak

Teknika eta gai librea.

Artista bakoitzak bi obra berri aurkeztu ahal izango ditu, jatorrizkoak, sinatu gabeak, eta hirugarren pertsona batek haren gainean izan ditzakeen eskubiderik libre.

Bi dimentsioko obra: gehienez 200x200 zentimetro markorik gabe. Markorik gabe edo markoarekin aurkeztu ahal izango dira; baina markoak gehienez ere 3 zentimetroko zabalera duen listoa izango du. Metakrilatoz babestuta egon daitezke, kristalarekin ez.

Hiru dimentsioko obra: gehienez ere 100 zentimetro izan beharko ditu (zabalera, altuera eta sakoneran).

Obrak muntaketa berezia behar badu, artistak berak egingo du obra entregatzean.

Parte-hartzaile bakoitzaren arduraren erantzukizuna izango da obraren garraioa obrak aurkeztean eta itzultzean. Amurrioko Udalak ez du bere gain hartuko obrak garraioan jasan dezakeen kalterik.

Ez dira onartuko baldintza egokietan ez dauden obrak, edo erabilitako materialaren hauskortasunagatik edo sendotasun ezagatik erraz narriatu daitezkeenak.

3. Sariak

Parte-hartzaile guztiek sari orokor hauek jaso ditzakete:

- Lehen sari orokorra: 4.000 euro eta oroitzapenezko eskultura.
- Bigarren sari orokorra: 1.500 euro eta oroitzapenezko eskultura.

Gainera, Amurrioko parte-hartzaileek sari hau jaso dezakete:

- Sari lokala: 1.000 euro eta oroitzapenezko eskultura.

Amurrioko artistatzat joko dira lehiaketarako obra entregatzean Amurrioko udalerrian errol-datuta daudenak.

Parte-hartzaile bakoitzak sari bat bakarrik jaso ahal izango du.

Sariak lege ezarritako atxikipenak izango dituzte.

Lan sarituak Amurrioko Udalaren esku geratuko dira. Egileek obrak izenpetuko dituzte, eta Amurrioko Udalarri lagako diote saritutako lanak ustiatzeko eskubidea. Dena den, eskubide hori bateragarria da egileek aurkeztutako obrak ustiatzeko duten eskubidearekin.

Sariak banatzeko ekitaldia: 2019ko irailaren 27an, 12:00etan, “La Casona” udal erakusketa aretoan, erakusketa inauguratzean.

4. Erakusketa

Hautatutako obrak "La Casona" udal aretoan jarriko dira erakusgai, 2019ko irailaren 27tik urriaren 25era. Hautatutako lanekin katalogo bat argitaratuko da. Parte-hartzaileek baimena ematen diote Amurrioko Udalari haien lanak erreproduzitzeko, katalogoa argitaratzeko ondorioetarako. Ezingo da erakusgai dagoen obrarik hartu erakusketa amaitu eta hurrengo egunera arte.

5. Epaimahaia

Epaimahaia arte, kultura edo kritikaren munduari lotutako adituek osatuko dute. Haien ardura izango da:

- Oinarri hauekin bat ez datozen obrak ez onartzea.
- Erakusketarako interesgarriak izan daitezkeen obrak hautatzea.
- Deialdi honetako sarien inguruan hausnartzea eta erabakitzea.

Sariatako edozein eman gabe geldi daiteke. Epaimahaiaren erabakiak ezin dira aurkaratu. Epaimahaiaren osaera epaia jakinarazten denean emango da argitara.

6. Obrak hartzea

"La Casona" erakusketa aretoan (Aldai 1, 01470 Amurrio – Araba), 2019ko irailaren 2tik 13ra, biak barne, lanegunetan, 10:00etatik 14:00etara. Bidalitako obren bilgarria erraz irekitzeko eta ixteko modukoa izango da, obra ez narriatzeko. Garraioaren edo aseguruaren gastuak bai obra bidaltzean bai obra jasotzean, parte-hartzailearen kontura izango dira.

Obrak bakoitzari honakoak erantsiko zaizkio:

- Oinarri hauekin batera doan izen-emate orria (edo fotokopia) behar bezala beteta eta sinatuta,
- Curriculum Vitae labur bat.

Amurrioko Udalak arreta osoa jarriko du obrak bere esku dauden bitartean zaintzeko, obrak itzultzeko azken egunera arte. Hala ere, eta ezinbestez, narriaduraren bat gertatuko balitz, ez da sortutako kalteen erantzule izango.

7. Obrak itzultzea

2019ko azaroaren 4tik 22ra, lanegunetan, entregatu ziren ordutegi eta leku berean; emate frogagiria aurkeztu beharko da. Fakturatuta iritsi baziren, garraio agentzia bidez itzuliko dira, kostu ordaingabeekin. Epean jasotzen ez diren obrak Amurrioko Udalaren esku geratuko dira.

8. Oinarriak interpretatzea

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarriak baldintzarik gabe onartzea, baita epaimahaiaren erabakia ere, eta legezko erreklamazio orori uko egitea. Oinarriak epaimahaiak interpretatuko ditu.

Amurrio, 2019ko apirilaren 1a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA